



HEI

HERRITARTASUNERAKO ESKOLA IREKIA
ESCUELA ABIERTA DE LA CIUDADANÍA

Herritarren Batzarrak

JARDUNALDIA

Informazioa



Abenduak 13



09:30-13:30



Gasteizko Udaleko bulego
teknikoak. Ekitaldi-aretoa.
(Teodoro Dublang
Margolaria Kalea, 25)

Izen ematea



[izena emateko imprimakia](#)



010
945 16 11 00



[Udal webgunea](#)



heieskola@vitoria-gasteiz.org



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

“...Gobernuak indartu egingo ditu jada dauden parte hartzeko mekanismoak, eta modu egituratuan bermatuko du herritarren parte-hartzea klima-aldaketaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuan. Horretarako, Estatu mailako Klima-aldaketaren Herritarren Batzarra eratuko du eta batzar autonomikoak eta udal mailako batzarrak eratzea gomendatuko du.”

7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena. 39.1. artikulua. Parte-hartze publikoa.

“Natura” terminoa homogeneizatzaileegia da. “Ekologia”, mugatua, arazoan dimentsioa murrizten du eta; izan ere, ekologiaren gaia ez da soilik ingurumenekoa, etxebizitzari, bizimoduei eta biziraupenari, antolaketa orokorrari ere badagokie”.

Bruno Latour, “Rien ne Peut plus arriver aux modernes”, art press, 428. zk, 2015ko abendua, 56. orr.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioak honela definitzen ditu herritarren batzarrak: demokrazia deliberatiboaren ariketa, herritar ordezkarien talde bat biltzen duena, ordezkatzeko duten gizartearentzat garrantzitsua den gai bati buruz informatzeko, eztabaidatzeko eta, haien ustez, zer gertatu beharko litzatekeen ondorioztatzeko.

Bestalde, ELGAK azpimarratzen duen bezala, modu eraginkorrean gauzatzen direnean, eztabaida-prozesuek emaitza politiko hobeak ekar ditzakete, arduradun politikoei erabaki zailak hartzeko aukera eman diezaiekete, eta herritarren eta gobernuaren arteko konfiantza hobetu.

Hain zuzen ere, 2010. urteaz geroztik, gobernu nazionalak eta tokiko gobernuak interes kontrajarriak dituzten gai eztabaidagarri buruzko erabakiak hartzeko guztion onerako bideratutako parte-hartze zibikoaren alde egin dute: klimari buruzko eztabaidan, esaterako, oso interes kontraesankorren arteko erdibideko akordioak lortzera behartzen baitu etengabe. Gizarte osoaren ordezkariak denez, dauden interes guztiak ordezkatzeko ditu batzarrak, hor datza haien erakargarritasuna. Sakrifizioak eta epe luzerako arazoak aztertzea dakarten dilemei aurre egiteko aukera ona dira.

Hori dela eta, herritarren batzarra lan-tresna posible gisa aurkezteko unea dela uste dugu. Horretarako, **Arantxa Mendiherat, Garikoitz Lekuona, Julia Neidig** eta **Pau de Vílchez Moragues doktoreak** gonbidatu ditugu, eta bertan azalduko digute zer diren herritarren batzarrak, zer ahalmen eta arazo dituzten politika publikoen inguruan, eta zer esperientzia dituzten jada amaituta dauden batzar-prozesuekin.

Herritarren batzarrak

PROGRAMA

09:30 Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena.
Leire Zugazua, Udaleko sindikoa.

09:45 **Arantxa Mendiherat**
Olatu deliberatibo batek Herritarren Batzarrak abian jarri ditu munduan. Nondik datoz? Zertarako balio dute? Nola antolatzen dira? Europan eta ingurune hurbilago batean izandako esperientzia berrietatik abiatuko gara, demokrazia deliberatiboaren tresna hori aztertzeke eta politika publikoen definizioan izan dezakeen eragina ikusteko.

10:30 **Garikoitz Lekuona** (euskaraz)
Tolosako deliberazio prozesuari buruz hitz egingo du Lekuonak. Laguntza izan arren, hutsetik eta lehen aldiz antolatzea ez da lan erraza. Prozesuan zehar mundu mailan kontrastatutako errezeta metodologikoak jarraitu arren, azken emaitza on baterako sekretua herritarrengan dago, emozioei lotuta.

11:00 **Julia Neidig**
Zer da hiri berde bat? Hiriak birnaturalizatzea paradigma nagusi bihurtu da hiri-plangintzan, baina, maiz, hiri-ekologizazioa ez dator bat auzokoek natura eta haren ekarpen anitzak baloratzeko moduarekin. Nola sor ditzakegu, bada, hiri berde eta inklusibo baten tokiko ikuspegiak?
Juliak doktorego-ikerketak aurkeztuko du Gasteizko kasu-azterketarekin.

11:30 | ATSEDENALDIA

12:00 **Pau de Vilchez Moragues**
Mallorcako Klimaren aldeko Herritarren Batzarra (2022-2023) Espainiako herritarren batzarraren lehen ekitaldietako bat da, eta lurralde uhartetar bateko lehena. Batzarra oso esperientzia ona izan da guztiontzat, baina une zailak ere izan dira. De Vilchezek ikaskuntza horiei guztiei buruz hitz egingo du, gizarte-partaidetzako prozesuetan hobetzen jarraitu ahal izateko onak eta ez hain onak direnei buruz.

12:30 MAHAI-INGURUA

Herritarren batzarrak

BIOGRAFIAK



Arantxa Mendiharat

Deliberativa elkartearen sortzaileetako bat da. Elkarteak demokrazia deliberatiboa sustatzen du eta herritarren batzarrak diseinatzeko eta ezartzeko erakundeei aholkuak ematen dizkie; munduko eztabaida-sare nagusietan hartzen du parte. Ernesto Ganuzarekin batera idatzi zuen *La democracia es posible. Sorteo cívico y deliberación para rescatar el poder de la ciudadanía* (2020, Ed. Consonni). Senperen jaioa, Bilbon bizi da.



Garikoitz Lekuona

Tolosako Herritarren Batzarrean (2022) parte hartu zuen Tolosako Udaleko Komunitate eta Gobernantzaren arduradun gisa, 2019tik betetzen duen postua. Tolosako Udalaren Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantzaren (2022) garapenean ere esku hartu zuen. Gainera, Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluko, Open Government Partnership Euskadiko eta Gipuzkoako Foru Aldundian parte hartzeko Espazio Teknikoko kide da.



Julia Neidig

Julia gizarte-zientzialaria da Klima Aldaketaren Euskal Zentroan (BC3) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Barcelona Lab for Urban Environmental Justice and Sustainability erakundearen (BCNUEJ). Doktore-tesian hiriko imajinario berdeei eta kontraesanei buruz ikertzen ari da, Gasteiz Europako hiriburu berdearen kasua aztertuz.



Pau de Vilchez Moragues

Mallorcako Klimaren aldeko Herritarren Batzarraren antolatzailekidea. Balear Uharteetako Unibertsitateko (UIB-Universitat de les Illes Balears) Klima Aldaketari buruzko Diziplina Arteko Laborategiko zuzendariordea. Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea da. Bere lana giza eskubideen eta ingurumenaren arteko elkargunean oinarritzen da, eta klima-auziak horren adierazpen berriak dira. 2021az geroztik, Balearretako trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako adituen batzordeko presidentea da.



Leire Zugazua

Gasteizko Udaleko sindikoa da 2017tik, eta Zuzenbidean lizentziaduna da. 2006tik egin du lan Gasteizko Udalean, eta nabarmentzekoak dira: DEMSACeko Administrazio Zerbitzuko Burutza; Hirigintza, Ingurumen, Partaidetza eta Sustapen Ekonomikoko Osoko Bilkurako Batzordeetako Idazkaritza, bai eta haren barruan sortutako ponentziak ere; eta Sindikoko Bulegoaren alboko gisa, aholkularitza juridikoko, txostenak idazteko edo herritarrei arreta emateko lanak egin zituen.